

AITITA-AMAMAK BELENGO KUMEARI ERAGITEN

Doinua: "Maritxu, nora zoaz"

Amama eta iloba Belengo Jesustxori bertsoan

1

- Ondo etorri, Jesus, zerutik lurrera
- Aitarengandik nator zuok salbatzera.
- Zer Salbatzaile zara jatsirik hain beheara?
- Danean izan nahi dot Nik zuon antzera.

4

- Hain haundi zareana hain txiki egina!
- Gizon izatea da nire atsegina.
- Hau, sinistu nahi eta sinistu ezina!
- Bai, nire maitasunez beteko bazina.

7

- Zure zain egon gara hainbeste denpora
- Aitak esanda nator gaur zuen ondora.
- Inork hartu nahi ezta herritik kanpora...
- Gaixo, zaharren artean han nago gustora!

10

- Gure artean zara gaur bizitzen jarri
- Hau bai dala guretzat benetan pozgarri.
- Egizko zoriona deuskuzu ekarri
- Zugaz sentitzen gara geu be jaiobarri.

2

- Aitita-amamak gara gaixo ta alargun
- Zuek danok eta Nik zer antza daukagun!
- Zahartzaroan Zurekin egin gara lagun
- Alkar behar dogu ta alkar maite daigun.

5

- Zorionak bihotzez Belengo Mutiko!
- Ez al nozue zuek bakarrik itziko.
- Zeuk batu gaituzu ta jarri Zeu erdiko
- Halan izan dedila orain ta betiko.

8

- Zoriona itzita zatoz arriskura
- Horra munduak Niri zer deustan ardura!
- Lagunduko deusugu nahi dozun modura
- Sartu poza, negarra dagoan lekura.

11

- Zeu jaio zarala-ta saltoka gizonak
- Hara zenbat gaituan maite Jesus onak!
- Jesusen izenean danoi zorionak!
- Eta ondo ospatu aurtengo Gabonak.

3

- Jesus, jaio zinan Zu antxina Belenen
- Nunahi jaio nahi neuke han izan zan lehenen.
- Graziz jaio zaitezcan prest gaukazuz hemen
- Poza dagon lekuan hantxe dago Belen.

6

- Gurean deusugu gaur Jaiotza prestatu
- Zuen artean pozik hartzen dot ostatu
- Jesus, senitarte hau arren, bedeinkatu
- Bakez ta pozez danok daigula ospatu.

9

- Lagun izan zenduzan Jose ta Maria
- Eta aingerutxoak talde kantaria.
- Bedeinkatu egizu gaurko afaria
- Zeu zara behar dogun gure pozkaria.

12

- Aintza zero goietan Jainko haundiari!
- Txalopin txalo Jesus jainko txikiari!
- Ospe ta gora Jose eta Andra Mari!
- Agur ta zorionak mundu guztiari!!!

A.Martzel